

Iceberg Programa



Hau bai arazoa

SARRERA

Maiz, leku jakin batean jarri behar dugu geure burua gatazka baten aurrean. Ziur asko, pizten dizkigun emozioek eragina dute horretan, baina beti jabetzen al gara emozio horietaz?

HELBURUAK

- ☒ Norberaren iritziak adierazten ikastea.
- ☒ Hitz egiteko gai izateko eta besteenganako errespetua edukitzeko hezteak.
- ☒ Moralaren zentzua garatzea gatazka bat konpontzeko hartutako jarreraren bidez.

METODOLOGIA

Talde-lana:

1. Irakasleak lau edo bosteko taldetan banatuko ditu ikasleak.
2. Jarraian, irakasleak proposatzen den testua irakurriko du ozen.
3. Ikasleak eztabaida hasiko dute, talde txikitan, irakasleak irakurritako testuaren inguruan. Talde bakoitzak bozeramaile bat izendatuko du, eta hori taldean ateratako erantzun eta ondorioak idatziz joango da.
4. Behin talde guztiek eztabaida bukatu ondoren, bozeramaileek arbelean azalduko dituzte talde txikien iritziak.
5. Irakasleak eztabaida bat antolatuko du ikasleek adierazitako ideien gainean.

Banakako lana:

6. Ikasleek jardueraren laburpen bat egingo dute, honako eskema honen arabera:
 - a. Zer arazo planteatzen den jarduera honetan.
 - b. Nola konpon daitekeen arazo hori.
 - c. Zer sentitu duzun jarduera hau egitean.
 - d. Zer aplikazio izan dezakeen, zure ustez, arazo honen konponbideak.

OHARRAK

Saioa hastean, ikasleei azaldu behar zaie gure gizartean maiz sortzen direla egoera batzuk non "epai moralak" egin behar ditugun, eta epai horiek zuzenean eragiten dietela besteen sentimenduei. Une oro begiratu eta dinamizatu behar da taldeen lana.

"TESTUA: "HAU BAI ARAZOA"

"Lehen hiruhilekoa bukatzen ari gara, eta, benetan, gertatzen ari den honek kezkatuta nauka; ez dakit zer egin. Azalduko dizuet:

DBHko 3. mailan gaude, eta orain dela hiru hilabete eskas hasi genuen ikasturtea.

Tutoreak gelako ordezkaria hautatzea proposatu zigun. Gai garrantzitsua iruditzen zaigu hori, ordezkariak zeregin garrantzitsuak baititu.

Nik uste dut oso ondo pentsatu genuela nori botoa eman. Irakasleak fitxa batzuk ekarri zizkigun, eta, bertan, pertsona horrek nolakoa izan behar zuen jartzen zuen, eta zer espero behar genuen harengandik, eta beste hamaika gauza, botoa nori eman erabakitzekeo lagungarri izan behar zitzaizkigunak.

Eta, azkenean, bozketa: Ane atera zen ordezkari. Ane neska isil samarra zen, baina oso arduratsua; sekula ez zen arazotan sartzen, eta oso jarrera zuzena zuen bai gurekin eta bai irakasleekin.

Egia esan, poztu nintzen harengatik, zeren, esan bezala, oso isila baitzen eta, horren ondorioz, batzuetan baztertu samar geratzen baitzen gelan. Horregatik, pentsatu nuen ardura hura izateak lagundu egingo ziola taldean hobeto sartzen.

Orain bi hilabete pasatu dira, eta, egia esan, Anek bere baitan bilduta jarraitzen du, isil; ez die erabat jarraitzen gure txantxei, eta ez da oso ondo sartzen taldean.

Eta ez dakit horregatik den edo orain azalduko dizkizuedan arrazoiengatik, baina gelakideak ordezkaria aldatzea ari dira pentsatzen.

Hona hemen arrazoiak: aldaketaren bultzatzaile nagusia Itziar da, eta horrek, batez ere, arreta erakartzea maite du, edonola eta edonoiz; taldeko liderra da. Nabarmendu zalea da; hitz egiten du, parte hartzen du, eta, gelan edozein arazo dagoenean, berea izaten da ahots nagusia. Jarrera horren ondorioz, irakasleren batek behin baino gehiagotan eskatu izan dio mesedez bazter geratzeko, gelan bazelako dagoeneko ordezkari bat gai hori jorratzeko.

Nik uste dut horrek min eman diola eta horregatik nahi duela beste bozketa bat eginarazi: bera hauta dezaten ordezkari. Horixe iradoki diot nik, baina berak ezetz dio, kontua beste bat dela: hain zuzen, hitz egin behar duenean hitz egiteko gai ez den pertsona bat, gelakideon interesak defendatzeko gai ez den bat, ezin dela ordezkari izan.

Nik ez dakit zer pentsatu, eta, are gehiago, ordezkaria aldatu behar dela planteatzen badute, ez dakit zer iritzi izango dudan, ezta botoa nori emango diodan ere.

Ez dut atsegin Ane minduta sentitzea gelakideek iritzi aldatzearatik, baina ez litzaidake gustatuko, era berean, bidezkoa den aldaketa bat ez egitea pertsona bat ez mintzeatzen bakarrik.

Zer uste duzue zuek?"

Eztabaida bultzatzeko, irakasleak honako galdera hauek egin ditzake, besteak beste:

1. Uste duzu Ane, duen izaera izanik, ordezkari ona izan daitekeela?
2. Zer iritzi duzu Itziarren jarreraren inguruan?
3. Nola jokatu zenuke halako egoera batean Ane zure lagun mina balitz?
4. Nola jokatu zenuke zure lagun mina Itziar balitz eta pentsatuko bazenu ez duela arrazoirik?
5. Zer erabakiko zenuke zuk halako egoera batean?



Jarduera bukatzeko “Toma de decisiones” bideo ikusiko dugu:



https://www.youtube.com/watch?v=pe_XWq7wOWQ

Informazio gehiagorako:

www.info@sasoiaprevención.com